

KIROL KLUBAREN BARNE ERREGIMENEN ARAUAK

IZARRAITZ IGERI ELKARTEA

HITZAURREA - Dokumentu honen helburua erregimen arauak eta Kirol Klubaren diziiplina-araubidearen egitura eta garapena azaltzea da.

Izarraitz Igeri Elkartean, indarrean dauden estatutuekin bat etorritik, funtzionamendu arau propioak garatzea (2. art.) eta kideen gaineko diziiplina-ahala (50. art.), eta aplikatzeko xedapenak eta araudiak, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearekin bat etorritik, lantzea.

Aurreko premisen arabera, honako hau idazten da: Barne-erregimeneko araudia, zeinaren arauak estamentu guztiei aplikatuko baitzaizkie. Beraz, edozein baldintzatan klubeko kide izateak arauon onarpena dakar.

1. ARTIKULUA

Klubeko, Zuzendaritza Batzordeko eta teknikarien kidegoko estamentu guztiek, langile, afiliatu eta igerilariak, bertan egiten duten edozein jardueratan taldearen irudi ona sustatzen duten jokabide-arauak mantenduko dituzte.

2. ARTIKULUA - IGERILARIEI BURUZ.

2.1 IGERILARIEN ESKUBIDEAK

2.1.1 Igerilari guztiek dute beharrezko arreta teknikoa jasotzeko eskubidea, ahalik eta modurik egokienean kirolean aurrera egiteko. Arreta honek, entrenamenduak eta lehiaketak kontuan hartzen ditu. Klubak ziurtatu beharko du beharrezko laguntza, igerilariak behar dituen giza baliabideekin eta baliabide materialekin, bai entrenamenduari bai lehiaketari modu egokienean aurre egin ahal izateko.

2.1.2. Igerilari guztiek dute lehiaketetan parte hartzeko eskubidea bere kirol progresioa bermatzeko eta bere helburuak lortu ahal izateko, bere aukera fisiko eta psikologikoak ahalbidetzen dioten einan. Eskubide hori ez da aplikatuko, ez badira 2.2.2 atalean aipatutako baldintzak betetzen.

2.1.3 Igerilari guztiek eskubidea dute behar den errespetuarekin tratatuak izateko teknikari, zuzendari eta klubeko gainerako kideen partetik.

2.1.4 Igerilari eta horien guraso guztiek eskubidea dute, teknikarien partetik kirol-bilakaerari, progresioari eta abarri buruzko informazioa jasotzeko.

2.1.5 Igerilari guztiek lehiaketetan parte hartzeko beharrezkoa den bidaia-logistika guztia izango dute eskura. Bidaia bakoitzean klubeko arduradun bat arduratuko da bidaiaren logistika guztiaz, jatetxeak, hotelak, etab.

2.1.6 Klubak igerilarien behar medikuei erantzungo die, oro har zerbitzu medikuek eta kontratatutako dituzten aseguruak estali ditzaketenak..

Modu espezifikoan, denboraldiko lehen esfortzu froga eta teknikarien zuzendaritzapeko fisioterapia-zerbitzurako ezarritako ehunekoa.

2.1.7 Klubak konpromisoa hartzen du igerilari guztiak modu berean sustatzeko erakundearen eta dirulaguntza emateko interesa duen edozein erakunderen aurrean.

2.1.8 Azaldutakotik kanpo geratzen da, diru-laguntza maila pertsonalean gertatzen bada: .Promesak: Kasu honetan, igerilariari ematen zaion kopurua honetarako erabiliko da:

egiten den jarduerarengatik maila pertsonalean sortzen diren gastuak estaltzeko, eta, batez ere, izaera espezifikokoak eta errendimendua hobetzekoak izango dira, kirol txapelketak (berariazko txapelketak, testak, analisiak, materiala erostea, etab.) teknikarien kidegoak egokitzen jotzen badu.

Maila pertsonaleko kontratuak: kasu horietan, zenbateko osoa emango da.

2.1.9 Klubak jarduerak garatu ahal izango ditu igerilariekin, modu pertsonalean honako puntu hauek betez:

Errendimendu handiagoa lortzera bideratutako kirol-jarduera izango da. Teknikarien ekimena izango da, eta Batzordeari aurkeztu beharko dizkio jardueraren xehetasunak, xedea eta kostua jasotzen dituen txostena, Batzordeak erabakiko du jarduera hori egin edo ez.

2.2 IGERILARIEN BETEBEHARRAK

2.2.1 Igerilariak maiztasunez eta garaiz joan behar dute entrenamenduetara. Igerilari bat ezin denean joan, ahal den neurrian, aldezturik jakinarazi beharko du. Gainera, deitutako lehiaketetara joan beharko dute.

2.2.2. Igerilari orok entrenamenduetan zein lehiaketetan behar bezala jokatu beharko du, ahal den neurrian ahaleginduz, eskatutakoa betez, eta kirol-zentzuarekin jardunez. Igerilari batek puntu hau betetzen ez duenean, behin eta berriz, kluba ordezkatzuz lehiatzeko eskubidea galduko du.

2.2.3 Igerilari guztiek, klubeko diziplinapean dauden bitartean, zuzentasunez eta edukazioz jokatu beharko dute lankide, entrenatzaile, arerio eta, azken batean, beste edozein pertsonarekin. Era berean, kirola egitean haien esku jartzen diren materialak, ekipamenduak eta instalazioak behar bezala eta behar den arretaz zainduz.

2.2.4 Igerilari guztiek klubeko txanoa eta kluba ordezkatzeko duten jantziekin aurkeztu beharko dute lehiaketetara.

2.2.5 Igerilari guztiek klubaren berezko kirol-diziplina beren gain hartu beharko dute bai entrenamenduetan, bai lehiaketetan. Horrek adierazten du erabaki teknikoak hartzerakoan, autoritate gorena eta bakarra entrenatzailea izango dela.

2.2.6 Igerilari guztiek, edo haien guraso edo tutore guztiek, klubaren kuota eta gehigarriak (kontzentrazio gastuetarako ezarritako ehunekoak, errifak...) ezarritako baldintzetan ordaindu beharko dituzte.

2.2.7 Igerilari guztiek, edo haien guraso edo tutore guztiek, klubak antolatutako ekitzetan parte hartu beharko dute, ahal den heinean eta behararen arabera.

3. ARTIKULUA.- ENTRENATZAILEEI ETA GAINERAKO LANGILEEI BURUZ

3.1 ESKUBIDEAK

3.1.1 Entrenatzaile eta gainerako langile guztiek eskubidea dute behar dituzten erabakiak hartzeko, Klubeko zuzendari teknikoari jakinaraziz erabaki teknikoak eta Klubeko Zuzendaritza Batzordeari, bestelako erabakien kasuan. Eskubide horrek, edozein igerilari, edozein ekitaldietara joan edo ez erabakitzeko gaitasuna ematen dio entrenatzaileari, izan entrenamenduak, lehiaketak edo taldeko beste edozein kirol jarduera.

3.1.2 Langile guztiek dute, lana eskatutako kalitatearekin egin ahal izateko beharrezkoak diren materialak eta giza baliabideak izateko eskubidea.

3.1.3 Langile guztiek kotraprestazio ekonomikoa jaso beharko dute itundutako baldintzetan.

3.2 ENTRENATZAILEEN ETA GAINERAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK.

3.2.1 Klubak lortu nahi duen helburuaren barruan, hau da, igerilari guztiek, duten gaitasunaren arabera, beraien maila gorena lortzea, eta, kontuan izanda, kirol-jarduerak ekarpen handia

egiten duela pertsonaren prestakuntza integralean, begirune osoa izango zaie berezko jarduera nagusiei eta lehentasunezkoei, batez ere akademikoei.

3.2.2 Entrenatzaileek eta klubeko gainerako langileek ardura eta profesionaltasun osoz beteko dituzte eman zaizkien eginkizunak, entrenamenduetara eta lehiaketetara behar den puntualtasunarekin joanda.

3.2.3 Entrenatzaileek eta gainerako langileek, beren ardurapean dauden igerilari guztiak, zor zaien begirune eta errespetuarekin tratatuko dituzte, helburu honekin: Ahalik eta harreman eta lan-giro atseginena bermatuz eta bakoitzaren ahalegina eta dedikazioa bere neurrian baloratuz.

3.2.4 Entrenatzaileen eta zuzendaritza teknikoaren eginkizuna da, entrenamendu eta lehiaketetan, igerilarietako laguntza tekniko egokia emateko, arduradun teknikoen kopuru egokia bermatzea.

3.2.5 Entrenatzaileek eta lan teknikoan inplikaturako gainerako langileen betebeharra da, igerilarietako guraso edo tutoreei, haien bilakaerari, jarrerari eta aukerei buruz, eskatzen diren xehetasun guztiak ematea.

3.2.6 Klubaren betebeharrak dira, eta, beraz, entrenatzaileenak, kirol-jardunaren ondoriozkoak. Beraz, ez dira sartuko lehiaketekin batera antola daitezkeen jai-ekitaldiak. Kluba ez da inolaz ere igerilarien erantzule egingo, norbere kontu eta arriskuz, edo gurasoena, adingabeen kasuan, kirol arlokoak ez diren horrelako ekintzetan parte hartzen dutenean.

4. ARTIKULUA: KIROL-LEHIAKETETARA JOATEARI BURUZ

4.1 JOAN-ETORRIEN ANTOLAKETA

4.1.1 Zuzendaritzari eta, zehazki, administrazio arloari dagokie kirol-lehiaketetarako joan-etorriak antolatzea: garraiobideak kontratatzea, ostatuak, menuak eskatzea eta, finean, joan-etorrien logistikarekin zerikusia duten alderdi guztien antolaketa.

4.1.2 Desplazamenduak antolatzeko irizpideak ezartzea, klubeko teknikarien kidegoari dagokio, kirol eta ekonomia-irizpideei eta bestelakoei, neurri txikiagoan, lehentasuna emanez, ikasketetan eragina izatea eta igerilariak eskoletara joatea, kasu.

4.1.3. Igerilarietako behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie, gutxienez 2 aste lehenago, bidaia-programari buruz, beti ere federazioaren edo klub antolatzaileen partetik atzerapenik edo beste eragozpenik ezean, familiek horren berri izan eta beharrezkoa den plangintza aurretiaz egiteko aukera izan dezaten.

4.1.4 Igerilarien gurasoek ez dute esku hartuko joan-etorrien antolaketan. Hala ere, iradokizunak edo proposamenak onartu ahal izango dira. Zuzendaritza Batzordeak jasotako proposamenak aztertuko ditu eta hartutako erabakia taldekideei igorriko dio. Azterketa horretan, lehen adierazitako irizpideak mantentzeko emango zaio lehentasuna, horien gaineko desbideratzeak ekar ditzakeen aurrekariak eta klub osoaren gaineko eragina kontuan.

4.1.5 Igerilari eta entrenatzaile guztiek egingo dituzten joan-etorriak klubeko diziplinapean burutuko dituzte. Salbuespenez, eta horretarako arrazoi objektiboak daudenean, aholkatu ondoren, eta igerilariak edo bere gurasoek aldeztu aurretik eskatuta, Zuzendaritza Batzordeak onar dezake igerilariaren batek aipatu diziplinatik kanpo bidaiatzea.

4.1.6 Lehiaketako entrenatzailea edo ordezkaria izango da desplazamenduaren arduraduna. Bere erantzukizunetik salbuetsita geratzen da, igerilariaren batek, bidaia klubeko diziplinatik kanpo egiten badu.

4.1.7 Lehiaketa-bidaian, arduradunak zainduko ditu bidaiarekin zerikusia duten alderdi guztiak eta, bereziki, kirol emaitzan eta igerilarien segurtasunean eragina dutenak, hala nola, lekualdatze, otordu, atsedena, errehabilitazio-tratamendu, hoteleko irteera, etab.

4.2. LEHIAKETA-DIZIPLINA

4.2.1 Igerilariak diziplina, zuzentasun eta talde-espirtua mantenduko dute txapelketa garaian eta taldekideak animatuko dituzte probak egiten dituztenean.

4.2.2 Igerilari bat lehiatzen denean, bere entrenatzailea igerilekuan egongo da beti, probaren garapena behatuz.

4.2.3 Proba bakoitzaren aurretik eta ondoren, igerilaria entrenatzailearekin egongo da jarraibideak jasotzeko eta emaitza aztertzeko.

4.2.4 Igerilariak klubaren ordezkari diren guztietan klubeko txapelarekin lehiatuko dira. Lortzen dituzten trofeoak jasotzeko adi egongo dira, eta ezin izango dute, justifikatutako arrazoiak izan ezean, eginkizun hau beste pertsona batzuen esku utzi. Garaikurren banaketara klubeko kamiseta edo txandal ofizialarekin joango dira.

4.3. GAUEKO IRTEERAK.

4.3.1. Klubaren kirol-izaeragatik, segurtasun-arrazoiengatik eta erantzukizunagatik, klubak ez die utziko igerilariei gaueko irteerarik egiten lehiaketa edo entrenamenduengatik egiten diren egonaldietan.

Irteera horiek, soilik baimenduko zaizkie, beren kasa eta ardurapean, gurasoen edo tutoreen aurretiazko eta berariazko baimena dagoenean, eta teknikariak irteera horiek kirol-helburuen aurkakoak ez direla irizten dionean.

5. ARTIKULUA. DIZIPLINA-ARAU BIDEA

5.1 Izarraitz Igeri Elkartek bere kideen gainean duen diziplina-ahalmena, organo jakin batzuei ikertzeko ematen zaien ahalmena, eta, jokabide jakin batzuk zehatzea, arau hauen arabera arautuko da, eta errekurtsioa aurkez dakioke Kirol Federazioari eta Euskadiko Kirol Justizia Batzordeari. Diziplina-ahal horrek kirolari, teknikari, bazkide eta afiliatuei eragingo die, estatutuetan aipatzen denarekin bat. Erregelamendu honekin eta gainerako kirol-ordenamendu juridikoa, lege honetan tipifikatutako arau-hausteetara hedatzen da barne-erregelamenduaren kapitulu hau.

Kirol-diziplinako araubide honek ez du eragotziko erantzukizun zibila, penala edo beste izaera batekoa, bere arauen arabera arautuko dena.

5.2 ARAU-HAUSTEAK

Erregelamendu honetan tipifikatutakoak bakarrik hartuko dira arau-haustetzat, eta arin, larri eta oso larri gisa sailkatzen dira.

5.2.1 ARAU-HAUSTE ARINAK

a) Hilabeteko denbora-tartean entrenamenduen % 30, gutxienez, justifikaziorik gabe hutsegitea.

b) Entrenamenduetara behin eta berriz berandu joatea.

c) Pertsona orori noizbehinka desobeditzea edo errespeturik ez izatea kirola egitean.

d) Desobedientzia puntuala, garrantzi gutxiko gaietan entrenatzaileek, zuzendariak edo langile eskudunek emandako jarraibideei, baldin eta ondorengo damutzea balego.

e) Kirol jarduera gauzatzeko klubaren eskura jartzen diren baliabide materialetan edo instalazioetan kalte arinak eragitea edo behar ez bezala jokatzeta.

f) Jantzi egokirik gabe lehiatzea.

g) Behin eta berriz interesik gabe entrenatzea.

h) Argi eta garbi kirol-arauen aurkakoak diren jokabideak, baldin eta larriak edo oso larriak ez diren, eta, oro har, arduragabekeria edo axolagabekeriagatik arauak eta aginduak ez betetzea dakarten ez-egiteak, edo jokabide apur bat okerra.

5.2.2 ARAU-HAUSTE LARRIAK

- a) Falta arinagatik ezarritako zehapenak urratzea.
- b) Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- c) Errespetu falta nabarmena eta publikoa, lankide, entrenatzaile edo beste edozein pertsonarekiko errespetu falta larriekin klubeko diziplinapean egonik.
- d) Instalazioei edo ondasun materialei kalte larriak eragitea, aurrez pentsatua.
- e) Klubaren irudia helburu partikularretarako eta erakundeari dagozkion helburuetatik kanpo erabiltzea.
- f) Behin eta berriz interesik eta adorerik gabe lehiatzea.
- g) Entrenatzaileen aginduak betetzeari nabarmen uko egitea.
- h) Nabarmen edo publikoki, kirol-jarduera garatzeak eskatzen duen duintasun edo ohorearen auka aritzea, eta, oro har, modu nabarmenean eta agerikoan kirol-ohoreari edo duintasunari kalte egiten dioten ekintzak.

5.2.3 ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

- a) Falta larriagatik ezarritako zehapenak urratzea.
- b) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- c) Edozein pertsonari eraso egitea edo, behin eta berriz, edozein persona edo estamenturekiko errespetu falta agerikoa kirola egitean.
- e) Bandalismoa, lapurreta edo instalazioetan eta materialetan aurrez pentsatutako kalte nabarmenak eragitea kirola egiten den bitartean.
- f) Debekatutako substantziak kontsumitzea edo debekatutako metodoak erabiltzea, kirol-errendimendu handiagoa lortzera bideratuak.
- g) Drogen edo substantzia estupefazianteen kontsumoa klubeko diziplinapean.

6. ARTIKULUA ZEHAPENAK

Diziplina Batzorde bat sortuko da, honako helburu hauek izango dituen: Klubaren barne-diziplinarekin lotuta dagoen edozein gaitan sor daitezkeen arazoak adostu eta erabakitzea. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Teknikari bat, Zuzendaritza Batzordeko kide bat eta igerilarien ordezkari bat.

6.1 DIZIPLINA-PROZEDURAREN FASEAK

- a) Hasiera ematea.
- b) Espedientearen instrukzioa.
- c) Ebazpena.

Eskuduntza duen diziiplina-organoak hasiko du prozedura, ofizioz, alderdi interesatuak eskatuta salaketa arrazoituagatik edo erakunde edo instituzio eskudunaren errekerimenduz.

Espedientearen instrukzioa eta ebazpena titulu honetan jasotako arauen arabera egingo da: Hemen adierazitako arau-hausteak bakarrik zehatu ahal izango dira eta irmoak diren unetik bete beharko dira, kautelazko neurrien independentziaz zehapen oso larriak aplikatzean.

6.1.2 ZEHAPEN ARINAK

Ohartarazpenetik astebetez kanporatzera joango dira, eta zehapen baten edo bestearen aplikazioa definitzeko irizpideak, berrerortzea, boluntaritatea, klubari edo beste pertsona edo erakunde batzuei eragindako kalteak izango dira.

Arau-hauste bat egin dela jakiten denean, hutsegite arintzat har daitekeena, Diziplina Batzordeak edo ordezkariak (taldeko entrenatzaile arduraduna) edo, hala badagokio, zuzendari teknikoak, araudi hau aplikatuz, berehala ebatziko du, interesdunari entzun ondoren. Bertan, hala badagokio, interesatuak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu hiru eguneko epean. Hartutako erabakien aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Diziplina Komiteari,

berraztertzeke errekurtsua, gehienez ere bost eguneko epean; errekurtsua, gehienez ere hamabost eguneko epean ebatzi beharko da.

6.1.3 ZEHAPEN LARRIAK

Astebetez kanporatzetik, 15 egunez kanporatzera artekoak izango dira, eta zehapenei dagokien irizpide bera aplikatuko da.

Larri bezala kalifikatu daitekeen arau-hauste baten berri izatean. Diziplina Batzordeak edo hark eskuordetutako pertsonak (Entrenatzailea, Taldeko arduraduna edo zuzendari teknikoa) berehala ebatziko du, diziplinazko espedientearen bidez eta interesatuari entzun ondoren, non, hala badagokio, dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituen, gehienez bost eguneko epean. Erabaki horren aurka errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Diziplina Komiteari, errekurtsu bidez, gehenez ere bost eguneko epean, eta errekurtsu hori epe barruan ebatzi beharko da, gehienez hamabost egun.

6.1.4 ZEHAPEN OSO LARRIAK

Zehapen oso larriak 15 egunez kanporatzetik, klubetik behin betiko kanporatzerainokoak izan daitezke.

Gainerako zehapenetarako erabili den irizpide bera aplikatuko da.

Espedientea hasita eta, hala badagokio, Instruktoarearen eskariz diziplina-organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartu ondoren, epaiaren eraginkortasuna babesteko edo kalte edo galera konponezinak saihesteko, honek, bost eta hogeitaz egun arteko froga-fasea irekiko du. Epe horretan, behar beste froga-eginbide egingo dira gertakariak argitzeko eta horien ondoriozko erantzukizunak zehazteko.

Instruktoeari dagozkio egin beharreko froga-eginbideak, bere edo interesdunek idatziz aurkeztutako eskariz edo proposamenez, aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan, eta horiei jakinarazi beharko zaie agindutako edo onartutako frogak egiteko lekua, eguna eta ordua.

Espedientea izapidetzeko eta ebazteko garrantzitsuak diren egitateek aukera izango dute zuzenbidean onargarria den edozein frogabideren bidez egiaztatuak izateko. Instruktoareak hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

Egindako jarduketak ikusita, instruktoareak kargu-orri bat egingo du, bertan egotzitako egitateak azalduko dira, bai eta, egin badira, burututako frogen emaitzak, eta baita espedientea ebazteko proposamena ere.

Hori guztia interesdunei jakinaraziko zaie, hamar eguneko epean jakinarazpenetik kontatzen hasita, interesdunak bere eskubide eta interesen defentsarako komenigarritzat jotzen duena adieraz dezan.

Kargu-orriari eta ebazpen-proposamenari erantzunda, edo interesdunek izapidea bete gabe adierazitako epea gaindituta, instruktoareak, ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio espedientea, hasierako ebazpena mantenduz edo, hala badagokio, hura modu arrazoituan aldatuta eta egindako alegazioak kontuan hartuta.

Organo eskudunaren ebazpenak amaiera emango dio espedienteari, eta Instruktoareak espedientea helarazi ondoren hamabost egun balioduneko epean eman beharko da.

Ebazpen hori eman aurretik, organo eskudunak praktika agindu ahal izango du, hobeto hornitzeko eta ebazpena emateko epe-muga etenda, interesdunek bere garaian proposatutako froga-eginbideak, azkenean, egin ez badira, instruktoarearen ukapenagatik edo proposatzaileari berari egotzi ezin zaion beste edozein arrazoiengatik.

Ebazpen horren aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da hamar eguneko epean eta, ezetsiz gero, gora jotzeko errekurtsua jar dakieke Batzar Nagusiaren aurrean.

Errekurtsu hori Batzar Nagusian aurkeztu beharko da 30 eguneko epean.

6.2 ERANTZUKIZUNA AZKENTZEA

Zehapena azkentzeko arrazoiak izango dira:

- a) Zehapena betetzea.
- b) Arau-haustearen preskripzioa.
- c) Zehapena preskribatzea.
- d) Erruztatua edo zehatua hiltzeagatik.
- f) Zehapena barkatzeagatik.

6.3 ERANTZUKIZUNAREN PRESKRIPZIOA

Arau-haustea hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, oso larriak, larriak edo arinak direnaren arabera. Preskripzio-epea arau-haustea egin eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen.

Preskripzio-epea eten egingo da prozedura hasten denean, baina hilabete baino gehiagoz geldirik egongo balitz, prozedura horren mende dagoen pertsonari egotz dakiokeen epea berriro hasiko da.

Zehapenak hiru urtera, urtebetera edo hilabetera preskribatuko dira, arau-hauste oso larri, larri edo arinak direnaren arabera eta preskripzio-epea zehapena ezartzen duen ebazpenaren hitzarmena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera edo zehapena betetzen ez denetik, hasi izan balitz, hasiko da kontatzen.